

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, ondo jardun dezan. Funtsezko jarduerak ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezeroengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Gure proiektua hezkuntzan lagungarri izango den aplikazio bat sortzean datza. Horregatik, gure funtsezko ekoizpena produkzioa da, bideoen produkzioa hain zuzen. Plataforma eta sareko jarduera eta arazoak konpontzea ere aipatu berri duguna bezain garrantzitsuak dira, aplikazio, webgunea eta bezeroekin harremanetan egotea ezinbestekoa baita.

# FUNTSEZKO JARDUERAK

---



- Bideoen grabazioak Eñautek egingo ditu. Grabaziorako estudioa antolatu behar da eta kide hau da eszenatokia prestatzeaz, fokoak leku egokian jartzeaz, kalibratzeaz eta kamaraz arduratuko dena. Hortaz gain, bideoaren gidotiaz arduratuko da, bideoa zuzenduz.
- Bideo hauek ordenagailura igorri eta sarean igotzerainoko prozesuaz, Jon eta Ekain arduratuko dira. Bi kideek grabatutako bideoak editatuko dituzte, audioa eta koloreak aldatuz, eta efektuak eta animazioak gehituz.



- Bezeroekin harremanetan Xabi egongo da. Izan ere, bera da sare sozialez arduratuko dena, proiektuaren azken xehetasunak eskaini eta posta elektronikoz iristen diren kezka, zalantzak edo bestelako mezuak erantzungo dituena.
- Negozioez arduratuko den bat ere edukiko dugu, enpresa desberdinekin harremanetan jarriko dena, gure proiektua zertan datzan erakutsiko liekena, eta hauekin gure proiektuarekin kolaboratzeko akordioak egingo dituena. Gainera, irakasleekin kontaktatzeaz arduratuko da baita ere. Azken honetaz, Manex arduratuko da.

